



ZERGA ITUNDUEN DIRU BILKETA METATUA GIPUZKOAN IRAILAREN 30ERA ARTE

Emaiza nagusiak

Irailera arte, Gipuzkoan, zerga-bilketa metatuaren hazkundera %4,8 izan da aurreko urtearekin alderatuta, sarrera gordinak %10,3 hazi direlako, eta itzulketak %27,9. Zuzeneko zergak %1,8 hazi dira, zeharkako zergak %3,3 eta Estatuarekiko doiketak %37,9.

Irailera arteko bilakaera positiboa esplikatzeko du, alde batetik, sarrerek ondoko kontzeptuetan izandako hazkunderak: BEZaren doikuntzak (bai lurraldeen artekoak, bai Estatuarekin egiten direnak), BEZa, sozietateen gaineko zergaren kuota diferentziala, lan atxikipenak eta zerga bereziak. Bestalde, irailera arteko zerga bilketan eragin negatiboa izan dutenen artean aipatu behar dira BEZaren itzulketak handitu direla, sozietateen gaineko zergaren itzulketak handitu direla, zerga bereziengatik Estatuarekin egiten diren doikuntzen ordainketak handitu direla eta PFEZaren kuota diferentzialaren itzulketak handitu direla.

Hona hemen zerga itunduen diru bilketa metatuaren laburpena, irailera arte:

GIPUZKOAKO ZERGABILKETA METATUA IRAILAREN 30ERA ARTE				
	2022	2021	aldea	%
Zergabilketa gordina	4.671.869	4.236.096	435.773	10,3
Itzulketak	1.292.537	1.010.508	282.028	27,9
Zergabilketa garbia	3.379.332	3.225.588	153.744	4,8
Aurrekontuaren betetze-maila	63,1%	69,4%	-6,3	

(Zenbatekoa mila eurokotan)

Kontzeptu nagusien bilakaera

Hona hemen zerga itunduen diru bilketa metatuaren laburpena, irailera arte:

GIPUZKOAKO ZERGA-BILKETA METATUA
IRAILAREN 30ERA ARTE

ZERGA KONZEPOTUA	ZERGA-BILKETA GORDINA			ITZULKETAK			ZERGA-BILKETA GARBIA		
	2022	2021	%	2022	2021	%	2022	2021	%
PFEZ	1.676.893.829	1.604.702.542	4,5	313.546.943	275.186.809	13,9	1.363.346.886	1.329.515.733	2,5
Sozietate Zerga	361.209.970	280.158.741	28,9	104.909.334	34.838.997	201,1	256.300.636	245.319.744	4,5
Gainerako zuzeneko zergak	134.295.052	147.793.086	-9,1	2.009.028	2.408.101	-16,6	132.286.024	145.384.985	-9,0
ZUZENEKO ZERGA GUZTIRA	2.172.398.851	2.032.654.368	6,9	420.465.305	312.433.906	34,6	1.751.933.546	1.720.220.462	1,8
BEZ	1.554.673.522	1.408.531.949	10,4	679.079.899	556.294.841	22,1	875.593.623	852.237.108	2,7
Zerga bereziak	363.045.911	333.430.909	8,9	19.035.584	8.147.707	133,6	344.010.327	325.283.202	5,8
Gainerako zeharkako zergak	94.402.425	94.579.225	-0,2	582.742	576.731	1,0	93.819.683	94.002.494	-0,2
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	2.012.121.858	1.836.542.084	9,6	698.698.225	565.019.280	23,7	1.313.423.633	1.271.522.804	3,3
TASAK GUZTIRA	22.508.059	22.169.364	1,5	2.642.039	1.569.421	68,3	19.866.020	20.599.943	-3,6
KUDEAKETA PROPIOA GUZTIRA	4.207.028.768	3.891.365.815	8,1	1.121.805.569	879.022.606	27,6	3.085.223.199	3.012.343.209	2,4
BEZEN doikuntzak guztira	436.239.063	314.966.800	38,5	7.214.263	7.398.296	-2,5	429.024.800	307.568.504	39,5
Zerga berezien doikuntzak	28.601.305	29.763.724	-3,9	163.516.873	124.087.383	31,8	-134.915.568	-94.323.659	
GUZTIRA	4.671.869.136	4.236.096.339	10,3	1.292.536.705	1.010.508.285	27,9	3.379.332.431	3.225.588.054	4,8

a. PFEZ

Lan etekinen atxikipenak %3,3 hazi dira aurreko urtearekin alderatuta, hau da, 42,3 milioi euro gehiago jaso dira aurten. Iaz aparteko sarrerak gertatu ziren kontzeptu honetan, eta horrek galga ezarri dio bariazioari.

Ondare irabazien atxikipenak 16,7 milioi handitu dira; eta kapital higikorren etekinen atxikipenak 15,7 milioi (kontzeptu horiek PFEZaren eta sozietateen gaineko zergaren artean banatzen dira, erdibana).

Ordainketa zatikatuak 6,1 milioi handitu dira.

PFEZaren kuota diferentzial garbiaren sarrerak 5,5 milioi handitu dira eta itzulketak 36,8 milioi. Kanpainako sarrerak uztailean eta azaroan kontabilizatzen dira, eta kanpainako itzulketen zati handiena apiriletik uztaileara arte gauzatzen dira.

Osagai guztiak kontuan izanik, PFEZaren zerga-bilketa garbia %2,5 handitu da, hau da, 33,8 milioi euro.



b. Sozietateen gaineko zerga (kuota diferentzial garbia)

Sozietateen gaineko zergaren kuota diferentzial garbia 7,1 milioi euro jaitsi da irailera arte, iazko epe berarekin alderatuta. Bariazio horrek bi osagai ditu: batetik, sarrera gordinak 62,9 milioi handitu dira, kanpainako sarrerak handitu direlako; eta bestetik, itzulketak 70,0 milioi handitu dira, kanpainako itzulketen eskaerak handitu direlako.

Kontuan eduki behar da kanpainako sarrerak abuztuan kontabilizatu direla eta kanpainako itzulketen eskaerak urte bukaeran gauzatzen direla. Era berean, ordainketa zatikatuak maiatzean, azaroan eta abenduan kontabilizatzen dira.

c. BEZ (Aldundiak kudeatua)

BEZari dagokionez, gipuzkoarrek ordaindutako BEZa lurralde arteko doikuntzen bidez berreskuratu ondoren, zerga-bilketa metatua %2,7 handitu da aurreko urtearekin alderatuta, hau da, 23,3 milioi euro gehiago bildu da:

- Gipuzkoako sarrerak %6,0 handitu dira, 63,1 milioi gehiago aurreko urtearekin alderatuta.
- Gipuzkoako itzulketak %22,1 handitu dira, 122,8 milioi gehiago.
- Lurraldeen arteko doikuntzak %23,4 handitu dira, 83,0 milioi gehiago.

d. Zerga bereziak

Elektrizitatearen gaineko zergaren bilketa %79,5 murriztu da, hau da, 11,5 milioiko murrizketa aurreko urtearen aldean, azken arau-aldaketen ondorioz.

Bestalde, tabako laboreen gaineko zergaren bilketa %20,0 handitu da, 15,7 milioi euro gehiago, eta hidrokarburoen gaineko zergaren bilketa %6,3 handitu da, 14,5 milioi euro gehiago.

e. Estatuarekin doikuntzak

Estatuarekin egiten diren doikuntzetan bilketa metatua, joan den urteko epe beraren aldean, 121,4 milioi handitu da BEZean eta 40,6 milioi okertu da zerga berezietan.

Estatuarekin egiten diren doikuntzetan azpimarratu behar da: BEZaren inportazioen hiruhilekoak 85,1 milioi hazi direla eta hidrokarburoen aurreko urteko likidazioagatik 37,6 milioi gehiago ordaindu dela.

ERANSKINA

**GIPUZKOAKO
ZERGA-BILKETA METATUA
IRAILAREN 30ERA ARTE**

GIPUZKOAKO ZERGABILKETA METATUA IRAILAREN 30ERA ARTE

ZERGA	ZERGABILKETA GORDINA			ITZULKETAK			ZERGABILKETA GARBIA			BETETZE-MAILA	
	2022	2021	%	2022	2021	%	2022	2021	%	2022	2021
Lan etekinen atxikipenak	1.331.708	1.288.043	3,4	3.259	1.869	74,4	1.328.449	1.286.174	3,3	70,1	75,7
Kap.higikorren etekinen atxikipenak	41.624	33.699	23,5	193	105	84,4	41.430	33.594	23,3	77,7	68,8
Kap.higiezinaren etekinen atxikipenak	20.461	18.625	9,9	59	86	-31,0	20.402	18.539	10,0	70,1	68,2
Ondare irabazien atxikipenak	26.143	17.771	47,1	32	28	17,6	26.110	17.744	47,2	105,3	154,3
Loteria eta apostu jakin batzuen gaineko karga berezia	1.692	2.991	-43,4	0	0		1.692	2.991	-43,4	39,4	69,5
Profesionalen ordainketa zatikatuak	18.981	16.512	15,0	48	5	933,6	18.933	16.507	14,7	67,7	60,4
Enpresarien ordainketa zatikatuak	28.472	24.768	15,0	72	7	933,8	28.400	24.761	14,7	67,7	60,4
Kuota diferentzial garbia	207.813	202.294	2,7	309.882	273.088	13,5	-102.069	-70.794			
PFEZ, guztira	1.676.894	1.604.703	4,5	313.547	275.187	13,9	1.363.347	1.329.516	2,5	65,9	72,1
Kap.higikorren etekinen atxikipenak	41.624	33.699	23,5	193	105	84,4	41.430	33.594	23,3	77,7	68,8
Kap.higiezinaren etekinen atxikipenak	20.461	18.625	9,9	59	86	-31,0	20.402	18.539	10,0	70,1	68,2
Ondare irabazien atxikipenak	26.143	17.771	47,1	32	28	17,6	26.110	17.744	47,2	105,3	154,3
Loteria eta apostu jakin batzuen gaineko karga berezia	0	0		0	0		0	0			
Kuota diferentzial garbia	272.983	210.064	30,0	104.624	34.621	202,2	168.358	175.443	-4,0	88,1	164,7
Sozietateen gaineko Zerga, guztira	361.210	280.159	28,9	104.909	34.839	201,1	256.301	245.320	4,5	85,9	126,5
Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga	44.535	51.590	-13,7	233	255	-8,6	44.302	51.335	-13,7	88,4	115,9
Ondarearen gaineko zerga	69.164	71.136	-2,8	1.126	811	38,9	68.038	70.325	-3,3	98,3	121,9
Ez-egoiliarren errentaren gaineko Zerga	11.404	11.766	-3,1	633	1.293	-51,1	10.771	10.473	2,8	58,2	61,6
Kreditu Erakundeetako Gordailuen gaineko zerga	9.155	9.005	1,7	0	0		9.155	9.005	1,7	94,4	94,8
Energia elektrikoaren ekoizpenaren g/zerga	37	4.296	-99,1	17	49	-65,2	20	4.247	-99,5	0,3	31,5
I. KAPITULUA, GUZTIRA.- ZUZENEKO ZERGAK	2.172.399	2.032.654	6,9	420.465	312.434	34,6	1.751.934	1.720.220	1,8	69,5	78,9
BEZ (Aldundiak kudeatua)	1.554.674	1.408.532	10,4	679.080	556.295	22,1	875.594	852.237	2,7	63,8	66,9
Ondare Eskualdaketen gaineko Zerga	53.451	54.567	-2,0	405	188	115,7	53.047	54.380	-2,5	69,3	97,1
Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga	10.877	10.975	-0,9	46	180	-74,6	10.831	10.795	0,3	66,9	72,9
Zenbait Garraibideren gaineko Zerga	5.637	6.033	-6,6	123	180	-31,9	5.515	5.853	-5,8	56,9	86,1
Alkohola eta edari deribatuak	2.596	2.978	-12,8	1.100	1.309	-16,0	1.496	1.668	-10,3	117,7	142,3
Bitarteko produktuak	112	83	34,9	41	33	25,0	71	50	41,4	105,8	74,8
Hidrokarburoak (tasa autonomikoa salbu)	249.833	233.213	7,1	5.709	3.549	60,9	244.124	229.664	6,3	46,3	48,9
Hidrokarburoak, tasa autonomikoa	0	5	-99,6	0	8	-99,6	0	-3			
Tabako laboreak	106.009	81.160	30,6	11.534	2.404	379,9	94.475	78.756	20,0	83,1	61,3
Garagardoa	1.355	771	75,7	486	149	226,2	868	622	39,6	129,8	132,7
Elektrizitatea	3.141	15.220	-79,4	165	695	-76,3	2.976	14.525	-79,5	18,2	71,8
Zerga bereziak, guztira (Aldundiak kudeatuak)	363.046	333.431	8,9	19.036	8.148	133,6	344.010	325.283	5,8	52,2	52,5
Hidrokarburoen txikizkako salmenten gaineko zerga	0	0		1	28	-96,7	-1	-28			
Aseguru Primen gaineko Zerga	21.437	20.168	6,3	0	0	1.250,0	21.437	20.168	6,3	60,2	76,4
Joku jardueraren gaineko zerga	992	1.502	-34,0	4	0		988	1.502	-34,3	44,9	71,5
Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga	1.233	1.332	-7,4	4	1	255,9	1.229	1.331	-7,7	55,9	74,0
Finantza-transakzioen gaineko zerga	0	0		0	0		0	0			
Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga	775	0		0	0		775	0		15,8	
Bestelako zerga iraungiak	0	0		0	0		0	0			
II. KAPITULUA, GUZTIRA. - ZEHARKAKO ZERGAK	2.012.122	1.836.542	9,6	698.698	565.019	23,7	1.313.424	1.271.523	3,3	58,8	63,5
Bingoa	634	363	74,6	0	0		634	363	74,6	126,8	36,3
Makinak eta aparatu automatikoak	6.840	4.486	52,5	51	59	-13,0	6.789	4.427	53,3	63,4	44,3
Kasinoak eta bestelakoak	1.460	1.308	11,6	0	0		1.460	1.308	11,6	81,1	72,6
Jokoaren gaineko tasa, guztira	8.934	6.157	45,1	51	59	-13,0	8.883	6.098	45,7	68,3	47,6
Luzapen eta premiamenduzko erretegia	4.756	4.004	18,8	111	192	-42,5	4.645	3.812	21,9	86,0	76,2
Berandutza interesak	3.736	5.163	-27,6	2.136	1.103	93,7	1.600	4.060	-60,6	24,6	75,2
Isunak	5.082	6.845	-25,8	344	215	60,0	4.738	6.630	-28,5	55,1	122,8
III. KAPITULUA, GUZTIRA.- TASAK	22.508	22.169	1,5	2.642	1.569	68,3	19.866	20.600	-3,6	59,3	72,0
ALDUNDIAK KUDEATUT.ZERGA ITUNDUAK	4.207.029	3.891.366	8,1	1.121.806	879.023	27,6	3.085.223	3.012.343	2,4	64,4	71,6
BEZaren doiketak: Aduanak-Inportazioak	305.961	211.957	44,4	0	0		305.961	211.957	44,4	67,3	58,1
Barne eragiketak	130.278	103.010	26,5	7.214	7.398	-2,5	123.064	95.611	28,7	49,7	46,1
BEZAREN DOIKETAK, GUZTIRA	436.239	314.967	38,5	7.214	7.398	-2,5	429.025	307.569	39,5	61,1	53,8
Alkohola, deribatuak eta bitartekoak: inportazioak	44	18	151,1	0	1		44	17	160,1	69,4	22,0
Alkohola, deribatuak eta bitartekoak: barne erag.	12.912	13.104	-1,5	0	0		12.912	13.104	-1,5	83,9	78,4
Hidrokarburoak: inportazioak	37	33	9,5	0	0		37	33	9,5	547,7	499,4
Hidrokarburoak: barne eragiketak (tasa aut. salbu)	0	0		160.507	119.842	33,9	-160.507	-119.842			
Hidrokarburoak: barne eragiketak (tasa autonomikoa)	0	3	-99,6	0	1		0	2	-99,5		5,2
Tabako laboreak	9.368	10.931	-14,3	3.010	4.242	-29,0	6.358	6.689	-5,0	61,3	101,7
Garagardoa: inportazioak	24	19	23,9	0	2		24	17	38,4	27,5	17,8
Garagardoa: barne eragiketak	6.217	5.655	9,9	0	0		6.217	5.655	9,9	86,0	87,9
ZERGA BEREZIEN DOIKETAK, GUZTIRA	28.601	29.764	-3,9	163.517	124.087	31,8	-134.916	-94.324			
EPF-RK ATXIKITAKO SARRERAK, GUZTIRA	4.671.869	4.236.096	10,3	1.292.537	1.010.508	27,9	3.379.332	3.225.588	4,8	63,1	69,4

(Zenbatekoa mila eurokotan)